

COVID-19 birusaren hedapenaren ondorioz dekretatutako alarma-egoeran Osakidetzako langileen euskara ikastaroetan aplikatzeko neurriak.

COVID-19ren hedapenaren ondoriozko alarma-egoeragatik, eta Funtzio Publikoko sailburuordearen 2020ko martxoaren 11ko ebazpenaren aurrean, IVAPek herri-langileentzat antolatzen dituen aurrez aurreko euskara ikastaroak eten ditu 2020ko martxoaren 12tik aurrera, EAEko hiru lurraldeetan, eta iragarri du etenaldiak iraungo duela bestelako agindurik ez den bitartean.

Harrezkero, posible izan den neurrian, zenbait euskaltegik bideak landu dituzte prestakuntzarekin aurrera jarraitzeko, aurrez aurreko eskolen ordeztu Internet edo bestelako tresnak baliatuz.

Jakinarazten dizuegu martxoaren 12tik aurrera IVAPek ez duela ordu-kredituaren zenbaketarik egingo lanorduetako zein lanorduz kanpoko aurrez aurreko ikastaroetan, ezta ere saio horien ordeztu euskaltegiek bestelako baliabide telematikoak erabiltzen ari direnean ere. Halako aukera duenak prestakuntza jasotzen jarraitu dezake bestelako baliabideekin, ikastaroa bukatu arte.

Autoikaskuntzako ikastaroetan ere IVAPek ez du ordu-kredituaren zenbaketarik egingo martxoaren 12tik aurrera. Hartarako aukera duenak prestakuntza jasotzen jarraitu dezake ikastaroa bukatu arte.

Gasteizen, 2020ko apirilaren 21ean

Maite Iruretagoiena Ibarguren
IVAPeko zuzendaria



HERRI-ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO